

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2210

249/2018 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Anestesiologia eta Bizkortzeko Mediku kategorian lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 111/2018 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Anestesiologia eta Bizkortzeko Mediku kategoriako oinarri espezifikokoak.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen I. eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gorako errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.

I. ERANSKINA

FAK. ESP. ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORTZEKO MEDIKUA

Presidentea:

- Titularra: Joseba Julen Ballesterro Zarraga.
- Ordezkoa: Miren Edurne Omaechevarria Legarra.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Ane Martin de La Fuente.
- Ordezkoa: Iñaki Roa Martinez.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Maria Carmen Iturricastillo Perez.
- Ordezkoa: Cesar Augusto Valero Martinez.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Luciano Jose Aguilera Celorrio.
- Ordezkoa: Antonio Arizaga Maguregui.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Nuria Gonzalez Jorin.
- Ordezkoa: Maria Carmen Ruano Suarez.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: Alberto Martinez Ruiz.
- Ordezkoa: Carlos Yarnoz Ruiz.

Seigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Alberto Isla Baranda.
- Ordezkoa: Pablo Manuel Keenoy.

Idazkaria:

- Titularra: M. Rosario Peñin Jimenez.
- Ordezkoa: Javier Arispe Ruiz De Gauna.